



ELAY Taldea

Kode Etikoa

Edukia

| | | | | | |
|-----------------|---|---|------------------|---|----|
| <u>1</u> | Elay Taldeko Kode Etikoa | 3 | <u>8</u> | Administrazio Publikoarekiko harremanak | 9 |
| <u>2</u> | Elay Taldearen Helburua | 3 | <u>9</u> | Lanean segurtasuna eta osasuna | 10 |
| <u>3</u> | Enpresaren Baloreak | 4 | <u>10</u> | Ingurumena | 10 |
| <u>4</u> | Haurren eta Nerabeen Eskubideak | 5 | <u>11</u> | Ingurunea | 11 |
| <u>5</u> | ELAY Taldea osatzen dugunon oinarrizko jarrerak | 5 | <u>12</u> | Arauen betetzea | 11 |
| <u>6</u> | Jokaera Orokorrak | 8 | <u>13</u> | Kode Etikoa dokumentu bizia | 12 |
| <u>7</u> | Harreman komertzial eta merkantiletan Jokaerak | 9 | | | |

1

Elay Taldeko Kode Etikoa

Kode Etiko honek ELAY TALDEAK beretzat dituen oinarri etikoak biltzen ditu eta bere helburua da ELAY TALDEKO pertsona guztien jokabidea gidatzea, gure balioak praktikara eramanez eta jarduera profesional guztietan koherentzia eta gardentasuna bermatuz.

Dokumentu hau langile, zuzendaritza, kolaboratzaile eta ordezkariari aplikatzen zaie.



2

Elay Taldearen Helburua

Elay Taldearen Helburua aberastasuna sortzea da, epe luzeko begiradarekin, aberastasun hau bide zuzen (mozkin banaketa, soldata, erosketa, azpikontratazio lanak...) eta ez zuzenetatik (zerga, diru laguntzak,...) Elay Taldea kokatua dagoen inguruetan zabalduz.

Aberastasuna sortzeko, Elay taldea osatzen dugun pertsona guztion helburu da ere gure bezeroei balioa ematea. Helburu hori gauzatzeko, gure jarrera, jokaera eta harremanak kode honetan jasotzen denaren arabera izango dira.

Ahal den neurrian Elay taldea osatzen dugun pertsona guztion osasuna, segurtasuna eta ongizatea ere bermatuko dugu. Horretarako beharrezko diren baliabideak ziurtatu eta neurriak hartuko dira.

3

Enpresaren Baloreak

- Konpromisoa

Lantaldean lan eginez eta enpresaren proiektuarekin bat eginda, norberari dagokion funtzioa **ahalik eta hobekien betetzeko ahalegin jarraitua** egin. Enpresaren misioarekin, ikuspegiarekin eta helburuekin lerrokatutako dedikazioa da gure oinarria.



- Bezeroarenganako Orientazioa

Bezeroaren beharrak eta lehentasunak **atzeman, ulertu eta asetzeko** helburuz jardungo da beti. Harreman guztietan gertutasuna, kalitatea eta konfiantza lehenetsiko dira, bezeroaren esperientzia eta gogobetetasuna hobetzeko.

- Errespetua

Beste aldeak **entzun eta baloratzea**, iritzi aniztasuna aintzat hartzea eta kritika oinarrituak onartzea oinarrizko betebeharrak dira. Era berean, hartutako erabakiak **arduraz hartu, defendatu eta bete**. Lan-ingurune osasuntsua, duina eta inklusiboa sortzea da helburua.

- Exijentzia

Arauak eta estandarrak **bikain betetzea eta betearaztea** jardunaren parte da. Kalitatearekiko, segurtasunarekiko eta egindako lanarekiko exigentzia-maila altua mantenduz, enpresaren helburuekin konpromiso sendoa hartuz.

- Zintzotasuna

Lan esparruan **gardentasunez, zintzotasunez eta koherentzia profesionaleraz** jardutea. Harremanetan egiazkotasuna eta zuzentasuna mantentzea, eta norberaren jarduna hobetzeko **autokritika eraikitzailea** egitea.

4

Haurren eta Nerabeen Eskubideak

- **Haurren eskubideak errespetatzea:** ELAY Taldeak haurren eta nerabeen eskubideak osorik aitortzen eta errespetatzen ditu, OITren 138. eta 182. hitzarmenekin bat etorriz, betiere euren ongizatea bermatuz.
- **Haurren lan-esplotazioa debekatzea:** Haurren lan-esplotazioaren edozein forma debekatuta dago. Enpresak ezin du inola ere haurren lana edo lanaren esplotazioa onartu edo baimendu.
- **Adingabeen lan baldintzak: 16 urtetik beherako pertsonarik ez da kontratatuko,** eta 16 eta 18 urte bitarteko nerabeen kasuan, lan-baldintza legalak errespetatuko dira. **Haurren eta nerabeen osotasun fisikoa, emozionala eta moralaren babesa** bermatuko da, **derrigorrezko ikasketak** oztopatu gabe.

5

ELAY Taldea osatzen dugunon oinarrizko jarrerak

Ondoren azaldutakoak dira Elay Taldea osatzen dugun pertsonak izan behar ditugun jarrerak.

Enpresaren konpromisoa da taldea osatzen duten pertsonekin batera jarrera hauek lantzea, bakoitzaren muga errealak errespetatuz.



Enpresaren Errentagarritasuna Defendatzea:

Denon zeregina da taldearen errentagarritasuna bilatzea eta defendatzea, bakoitza dagokion esparruan eta lanpostuan beti ere, enpresaren balore eta printzipioak errespetatuz eta legedia betez. Gure helburuak lortzeko, errentagarritasuna funtsezkoa da, eta guztiok horren alde lan egingo dugu.

Helburu Komuna Norberaren Gainetik Jartzea:

Taldean, helburu komunak beti norberaren helburuaren gainetik jarriko dira. Adostutako konpromisoak behar den epean eta moduan betetzea izango da gure lehen helburua. Horretarako, guztion ahalegina, taldekako lana eta lankidetzak izango dira funtsezkoak.

Arau eta Prozeduren Betetzea:

Enpresak eta langileek, bere funtzioen garapenean, indarrean dagoen legedia eta enpresako arauak zein prozedurak betetzen dituztela izango dute kontuan.

Aktiboen Zaintza eta Segurtasuna:

Enpresaren aktiboak (ondasunak, ekipoak eta instalazioak) zaintzea funtsezkoa da, beti ere segurtasunari, antolaketari, ordenari eta garbitasunari garrantzia emanaz.

Bezeroenganako orientazioa eta Profesionaltasuna:

Bezeroak ezagutu eta positiboki baloratuko ditugu, beraien beharrei eta lehentasunei egoki erantzuteko, gure erakundea garaiz eta behar bezala egokituz. Profesionaltasunez, pertsona eta baliabideen segurtasuna bermatuz, lanak ondo eta garaiz beteko ditugu, beti ere enpresaren balore eta printzipioak errespetatuz.

Industrializazio arrakastatsuak lortzeko, garapen-proiektuetan aktiboki parte hartuko dugu. Eskaintzen ditugun produktuak eta haien funtzionalitatea ezagutzea funtsezkoa izango da gure lana hobetzeko eta produktuaren kalitatea ziurtatzeko.

Exijentzia:

Estandarrak definitu eta finkatu, eta bete eta betearaztea ezinbestekoa izango da, desbideratzeak aztertu eta konponbiderako ekintza planak ezarriz.

Eraginkortasuna etengabe hobetzea eta arriskuak saihestea gure eginkizunetako bat da. Beste jarduerak batzuetan dituzten eraginak aztertuko ditugu, eta helburuak lortzeko konponbide egingarriak aurkeztuko ditugu. Etengabeko jardueraren ebaluazioa eta hobekuntzak bilatzea funtsezkoa da.

Malgutasuna eta Disponibilitatea:

Inguruko egoerei egokitzeko malgutasun eta disponibilitate egokia izango dugu, beti ere gure lanpostuan eta taldeko eginkizunean eraginkorrak izateko.

Iniziatiba eta Hobekuntzarako Jarrera:

Sakoneko arrazoiak ulertzen saiatuz, gauzak egiteko era hobeagoak bilatuko ditugu. Laneko edozein arlotan, hobekuntza eta garapenak bilatu, proposatu eta egikaritzeko jarrera izango dugu, beti ere taldearen eraginkortasuna eta errentagarritasuna hobetzeko helburuarekin.

Talde Lana:

Taldearen lana oinarri izango da gure enpresako lan ereduan. Guztion parte hartzea ahalbideratuko dugu eta bultzatuko dugu, taldekako lanak bultzatuz eta elkarrekin lortuko dugu arrakasta.

Talde lanak bultzatuko du gure enpresaren arrakasta eta errentagarritasuna.

Errespetua:

Bilera guztietan, prestaketan, garapenean eta iraupenean puntuala izatea. Besteekiko errespetu adierazpena izateaz gain, puntualtasunak taldearen eraginkortasuna eta produktibitatea areagotzen ditu, eta lan giro on bat sortzen laguntzen du.

Ez hitz egin gaizki eta ez kritikatu pertsonak, egitateak, kolektiboak, eragindakoak bertan izan gabe.

Zintzotasuna:

Autokritika modu sistematiko eta eraikitzailean egingo dugu, gure jarduera hobetzeko eta portaera desegokiak zuzentzeko. Beharrezko informazio guztia partekatuz, taldearen indarra handitu eta proiektuen arrakasta ziurtatuko dugu. Etengabeko ikaskuntza eta elkarrekiko lankidetzaren funtsezkoak izango dira helburuak lortzeko.

Diskriminazio Eza:

Taldeko pertsona guztiek errespetu osoa erakutsiko dute eta ez da onartuko inolako jarrera erasokorrik, biolentzia, mehatxu edo intimidazio fisiko zein psikologikorik. Pertsona guztiak duintasunez eta errespetuz tratatuko dira, bakoitzaren arraza, kolorea, adina, generoa, sexu-orientazioa, erlijioa, naziotasuna edo sinesmen kulturalak edozein izanik ere.

Edozein langilek oinarrizko eskubideen aurkako edonolako ekintzaren baten susmo edo ezagutza izan bezain pronto, bere arduradunei edo enpresaren ordezkariari jakinarazteko obligazioa dauka, egoera bideratzeko neurriak ahalik eta azkarren hartuak izan daitezten.

Eskubide Sindikalak:

Eskubide sindikalak errespetatuko dira eta jardun sindikala bermatuko da.



6

Jokaera Orokorrak

- Enpresaren edo eta besteen informazioa babestuko eta konfidentziasunez erabiliko da. ELAY taldekoa zein taldearekin harremana izan dezaketen gainontzeko interes taldeen Informazio konfidentziala bere horretan mantenduko da.
- Datu konfidentzialen babesa bermatuko da legeak dioena beteaz.
- Elay osatzen duten pertsonen datuak zein enpresako informazioaren babesa bermatzeko, Informazioaren Segurtasunerako Kudeaketa Sistemaren “*Praktika onen gida*” dokumentuak dioena beteko da.
- Jabetza intelektual, enpresakoa zein besteena, errespetatuko da eta honen urraketak arbuiatu egingo dira.
- Enpresak emango dituen dirulaguntza edo eta babes eta mezenasgoek ez dute inolaz ere, norbanakoen onurarik bilatuko. Laguntza guzti hauek beti, legea errespetatuz emango dira.
- Ez da lanpostuaren aprobetxamendurik egingo langilea edo eta bere senide eta lagunentzat justifikatu gabeko abantailak lortzeko.
- Programa eta sistema informatikoak legedia eta barne prozedurak errespetatuz erabiliko dira.
- Ez da onartuko enpresaren edo besteen ondarea kaltetu dezaken iruzurrezko jokaera edo maularik.
- Enpresaren edo besteen ondarea kaltetu dezaken konfiantza abusuak arbuiatuko dira.

7

Harreman komertzial eta merkantiletan Jokaerak

Elayrekin harremana duten interes talde guztiak, hau da, bazkide, langile, bezero, hornitzaile, azpikontrata eta erakunde ezberdinak, oso garrantzitsuak dira Elay Taldearentzako.

Guzti hauekin gure harremanak zintzo eta etikoak izan behar dira eta ondorengo jokaeretan zehaztuko da:

- Lehia leiala egitea.
- Interes taldeekiko jokaera maltzurrik ez izatea.
- Interes taldeei bete ezinezko agindurik ez ematea.
- Eskupekorik ez eman eta ezta jasotzea ere.
- Opari eta dohaintza pertsonalik ez jasotzea. Jasotzen direnak beti ere legalak badira, enpresari ematea.
- Ez dira inolaz ere, legearen aurka eta enpresaren onurarako diren tratu komertzial edo merkantilik sinatuko.
- Enpresa pribatu zein publikoetan gerta daitezkeen ustelkeria ekintzen aurrean intolerantzia erakutsi eta arbuiatu egingo dira.

Hau dena bermatzeko, beharrezkoak diren barne neurriak hartuko dira eta betetze mailaren jarraipena egingo da.

8

Administrazio Publikoarekiko harremanak

- Zerga eta kontabilitate arloan gardentasuna eta objetibotasuna izango dira arauak.
- Erakunde publiko eta funtzionarioekin izango ditugun harremanetan gardentasuna eta zintzotasuna izango dira gure oinarritzko jokabideak.

9

Lanean segurtasuna eta osasuna

Elay taldea osatzen dugun pertsona guztion osasuna eta segurtasuna ahal den neurrian bermatzeko arreta berezia ipiniko da, beharrezkoak diren neurriak hartu eta baliabideak ziurtatuko dira.

Elayko pertsona guztiak lanean gure eta ingurukoen segurtasuna bermatzeko neurriak hartuko ditugu. Guztiok konpromiso hauek hartzen ditugu:

- a) Bakoitzak bere lanpostuari dagozkion NBE-ak erabiliko ditu.
- b) Guztion segurtasuna bermatzeko enpresan zehaztutako segurtasun arauak beteko ditugu.
- c) Norbaitek arauak betetzen ez dituela jakin bezain pronto, dagokion arduradunari ohartarazi beharko zaio.
- d) Segurtasuna bermatzea baztertu ezinezko printzipioa da Elayrentzat. Gure konpromisoa da proiektuak garatzekorakoan bete beharreko segurtasun eskakizun guztiak zorrotz betetzera bideratzea, prozesuak dituzten segurtasun eraginak identifikatuz eta murriztuz.

10

Ingurumena

Elayko pertsona guztiek gure ingurumena zaintzeko ardura gure gain hartzen dugu.

Elay taldeak ingurumenari lotutako konpromiso hauek hartzen ditu:

a. Baliabideen erabilera eraginkor bat egitea.

Elay taldeko pertsona bakoitzak berari dagozkion baliabideak era eraginkor batean erabiltzeko ardura dauka.

Edozein motatako galerak saihestea, erabilitako lehengaiak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea izan behar dira etengabeko helburu.

Gure iharduerak sortzen dituen azken hondakinak indarrean dagoen legediaren arabera kudeatuko dira.

Barneratzen diren baliabide berrietan, eraginkortasun energetikoa kontutan hartuko da, aurrezpen ekonomikotik azterketa ezberdindu bat eginaz.

b. Ingurumena errespetatzea.

Ingurumenaren errespetua baztertu ezinezko printzipioa da Elayrentzat. Proiektuak garatzeko orduan gure konpromisoa ingurumen eskakizun guztiak zorrotz betetzera bideratzen da, eraginak ahalik eta txikienak izatea bilatuz eta prozesuek dituzten ingurumen eraginak identifikatuz eta murriztuz.



11

Ingurunea

Bere sorreratik, Elayk gizartearekiko konpromiso zuzen eta argia erakutsi du. Elayren jokaera garapen jasangarriaren aldekoa izango da, inguruko mota guztietako aberastasuna babestuz (ekonomikoa, kulturala,...), osasun publikoa zainduz eta pertsonen berdintasunaren alde lan eginez.



12

Arauen betetzea

Kode honetan zehazten diren arau eta jokabideak bermatzeko Zuzendaritzaren zeregina izango da arau hausteen aurrean neurriak aplikatzea; horretarako “Enpresako Hitzarmena” dokumentua oinarritzat hartuko da.

13

Kode Etikoa dokumentu bizia

Une honetan gureganatzen dugun, eta ELAY taldearen printzipioak eta Taldea osatzen dugun guztion jarrera eta jokaerak arautzen dituen kode honek izaera bizia eta dinamikoa izan behar du.

Gure izaera, jarrerak eta jokaerak hobetze bidean, taldea osatzen dugun guztion ekarpenak aztertuko dira. Azken helburu honetan lagungarri baldin ba dira, aintzat hartuak izango dira.

Kode Etiko hau gure eguneroko jardueraren gida izango da, gutariko bakoitzak barneratua izan beharko dugu.

Kode Etiko hau aldiro berrikusia izango da.